



MALLABIKO UDALA



Mallabiko Alkatea

MILA MODRAGON

Mallabitar hori:

Zugana nator MALLABIA udalerriko mapa topografiko-toponimikoa aurkeztera, paper xume batean gauzatzen dena, baina jende eta ordu askoren lanaren emaitza dena.

Areago oraindik, herri honetan gizakia dagoenetik gaur egun arteko biztanleen ekarpena da, horixe baita toponimia: herri batek leku-izenen bitartez idatzitako bere historia liburu propioa. Horregatik saiatu gara lan hau ahalik eta erarik parte-hartzaileenean egiten, beti herritarren ekarpenak kontuan izanda, azken batean, toponimia guztiona eta guztiontzakoa delako. Gure esker ona, beraz, egitasmo hau burutzeko laguntza eman duzuen herritar guztioi. Bereziki, Pello Mugartza eta Justo Azagirre Orraitio Euskara Elkarteko kideei, leku-izenak batzen egindako lanagatik.

Lan hau izan dadila gure herriko leku-izenak ez galtzeko edo berreskuratzeko abiapuntua, ondare kulturala diren neurrian, gure ardura delako etorkizuneko belaunaldietakoei helaraztea.

Mapan agertzen diren leku-izenak Euskaltzaindiak araututakoak dira, gehienetan jatorrizko aldakiak lehenetsiz eta azken hamarkadetako aldaketak baztertuz.

Amaitzeko, esan dezagun mapa perfekturik ez dagoela. Beraz, zuzentzekorik aurkituz gero, jakinarazi udaletxean, hurrengo ediziorik balego, kontuan hartzeko. Udalaren webean, beti izango da eskuragarri maparen bertsio eguneratua.

Har ezazu MALLABIA herriak ematen dizun opari eder hau, gure herria hobeto ezagutu, aztertu eta erabili dezazun.

Zurea eta zuretzat delako...

*Lana
Mata*

